

v. BVg. 22

1746







N<sup>o</sup> 324305

325  
8224

1875<sup>an</sup>

## JUBILAU URTHE SAINDUAN

Bazco biharamun eta hirugarrenean

## LOURDESEN ETA BETHARRAMEN

Escual herritic pelegrin cirenen

OTHOITZAPENA

A. M.

---

BAYONAN

Andre LAMAINÈRE alhargunsaren imprimerian,  
Chegarayco carrican, numero 39<sup>an</sup>

---

1875



1875<sup>an</sup>

## JUBILAU URTHE SAINDUA

Bazco biharamun eta hirugarrenean

## LOURDESEN eta BETHARRAMEN

Escual herritic pelegin cirenen

### Orhoitzapena



#### I.

Jaincoa Jainco dela nahiz frango ja ezagun den mundu huntaco gauza naturalenetaric ; halere ascotan gure Fedear badu norapeit ernatcearen beharra, eta mundu huntaz bertceric ere badela, on da bertce munduticaco cerbeitec ohar-taraz gaitzan.

Miraculuac horra certaco diren.

Fedeac bazterretan sobera indar har beldur direnec, ez lukete nahi balitz miraculuric, eta beren ez nahiace diote erranarazten ez dela eta ez daitekela.

Guirichtino leialari hala hala, miraculua gaucetan den naturalena zaio jainco baten bothereac eguiteco.

Hargatic gure Eliza catolicoaren lequetan, miraculuac ez dire ez edo zoin ez hala hula sinhesten : liburu sainduetarie fedezco articulutzat zoin ere baititu Elizac iracusten, eta hec dire bakharric baitezpada sinhexi beharrac bekhatuaren penan.

Hetaz bertzalde ere, bertce cembat miraculu ez da guerthatu, eta oraino ere guerthatcen, mundu huntaco indar naturalez guerthatutzat nihundic ecin espicatuac, nihola ere ecin ukhatuac, gain gainetic frogatuac, izpiritu handi eta arguituenez icusiac, ikhertuac eta sinhexiac? Hala nola baitire gure dembo-retan Lourdeco miraculuac.

Lourdeco miraculuen sinhestea ez du baitezpada Fedeac manatcen, bainan bai centzu comunac.

Halere gure sinheste hortaz aisechago irri eguin lirote cembeitec, gure ere gure aldetic hetaz cer phenxa ez baguinaki, eta ez balitz azkenecotz gure irri eguin aldi.

Ez du oraicoa Ama Birjinac, gure lekhuxuetan bere presentciaren edo bere botherearen miraculuzki seinalatcea.

Orai Lourdes bezala, bertce ordur Betharram ere berechi zuen bere amodioaren eta bere miraculuen lakhet lekhutzat.

Betharram eta Lourdes, biac bat bertcearen hauzoac eta gutaric hain hurbil, nola eta certaric diren hoin ohoratuac, hoin errekestatuac, hoin saindu eta hungigarri, dugun orai hemen cembeit hitceztan erran.

---



II.

**Beth arram.**

Baionaco diosesaren bachter bachter  
batean, gure eremuetan dugu Bethar-  
ram.

Duela zazpi ehun urtheco paperetan  
ja aiphu da Betharrameco beilez.

Hainitz oraino lehenago eta naski  
Mairu demboratic lasterchco, huna cer  
guerthatu cen.

Orai caperaco aldare nausiaco dagocan  
tokia lehen harroca bat cen, chut eta  
gora mendiaren paretatic ureraino helt-  
cen cena, dena ere sasiaco eta lapharrec  
hartua.

Behin artzain batzuec icusi zuten gar  
eder bat atheratcen harroca horren  
macelaco lapharretic, eta oharturic gar  
horrec ez zuela lapharra batere erretcen,

badohaci harat, icusi behar dutela bada cer miraculu den hori.

Hantchet atchematen dute Ama Birjinenaren potret bat bere Jesus haurra altzoan.

Laster eguiten dute herrico aphezari erraterat. — Berria barraiatcen da.

Uraren bertzaldean lehen bai lehen obratcen dute harrizco aldaretto bat; eta han pharatcen dute Ama Birjina.

Bainan laster nihor ohartu gabe handie escasten zaiote, eta causitcen dute bere lehengo tokirat itzulia.

Lekhu gaitz eta ixusi hartarie berritz khenduric, baderamate oraicoan eliza barnerat, eta gau gucia campotic haren zain egoiten dire.

Biharamun arguico ordean, egundaino bezala Ama Birjina bere harrocan.

Hangotzat zuela bere borondatea, harrocae hauxiz eta mendiaren zathi bat celhaituz, hantche berean eguin cioten capera bat ederra.

Capera horren parrean ibia baratche eta ichil ichila doha, hare ere bere guisan Betharrameco Ama Birjina errespetatu eta ohoratu nahi balu bezala, eta han bada usin bat icigarri barna dena.

Behin nescatcha bat harat erori eta ihotcera zohan. Oihuz hasten da Ama Birjinari. Ama Birjinac haitz adartto bat hedatcen dio, eta hari lothuric nescatcha heltcen da ur bazterrera.

Hori bezala bertce asco miraculu guerthatu baitcen Betharramen, jendeac harat hartu zuen bere beiletaco lehia, eta Frantziaren zathi handi batec han zuen bere Fedearen azcartegua.

Hor heldu dire higanotac. Su ematen diote caperari, eta Birjinaren potret saindua doi doia handic athera eta gordetcen du aphez batec, hauzoco etche batean.

Guero oraino higanoten beldurrez ereman zuen Espainiarat, nun laster hasi baitcen bere miraculuzco berthutearen

iracusten... Gueroztic Españolec ez ahal zagocaten guretzat; ecen hantche dute oraino ohoratcen Tagosteco elizan.

Halere hargatic Jainco onac berdin bothere eratchiki cion haren Betharameco toki ohiari. Miraculuac berdin aintcina obratcen ciren capera errearen lekhuari, eta berdin oraino jendeac atchikitcen cion hango debocioneari.

Cembeit gauez argui handi batec arguitu zuen hango harrasiec zagocaten eremua eta entzun ciren choragarrizco cantu batzu handie atheratcen.

1614<sup>an</sup>, Louis XIII, Frantciaco erregeac eguinaraci zuen oraico capera hori lehengoaren toki ber berean.

Handie urthe pare baten buruan gurutce bat landatu zuten caperatic goiti dohan mendiaren bizcarrean.

Buruilaco dembora eder eta garbi batez, eguerditan, Montoteco bortz laboraric, jaten ari cirelaric campoan, nihun

ez hedoi bat ez den mendreen haicerie ez celaric, bet betan aditu zuten osox-calerna baten harrabox icigarria Betharrameco gainetic. Behatcen dute, eta icusten gurutce han landatu berria haice cirimola batec lurrera aurdikitcen.

Berehala cirimola guelditcen da, eta hor gurutcea bera chutitcen da argui miragarri batez inguratua, eta khoro distirant bat gaineco buru buruan.

Gurutcearen miraculu horrec eman cioten hango apheceri bururat mendi hartan eguiteco Jerusalemeco Galbarioaren iduri bat.

Louis XIII erregueac behinic bat, bere gain hartu zuen estacionetaco caperetic baten eguinaraztea.

Betharrameco galbario hori baino hun-kigarriagoric gauza guti da bazterretan. Pelegrinec han eguiten dituzte estacioneac.

Bertzalde oraino, Andre Dena Maria-



ren caperaco athe sahexean, bada ithurri  
bat demboraz han miraculuzki sorthua.  
Hango urari ere Jaincoac eratchiki dio  
hainitz gaitz gaichtoen sendatecco ber-  
thutea.

III.

**Lourdes.**

Duela hogoi eta hamar bat urthe  
Lourdes icus eta orai icus... hori bera  
cer miracuilua !

Erroma eta Jérusalem utz eta, mun-  
duan ez da orai guirichtinoen fedearent-  
zat hori becein miraculuzco lekhuric.

Eta Lourdes hortan orai icusten eta  
guerthatcen diren gauza miragarrien  
hastapena, mundu guciac orai horrat  
buruz duen lehia eta mobimenduaren  
abiadura, hamalau urthetaco nechca  
pobre eta arrunt baten erranetic !... Hori  
bera esplica bezate miraculuetan sin-  
hestic ez dutenec...

Nechca horrec Bernadeta zuen icena.  
Aita eta ama eiharazain behartto batzu  
cituen, eta oraino beren alabaren mira-  
culuetaric batere aberaxtu ez direnac,

Bernadeta sortcetic mendre eta eria cen. Hauzo herri batean atchiki zuten lehenic amañotan, eta guero artzain, hamalau urthe eguin arteraino.

Ordu baitzuen eguin lehen comunio-nea, eta oraino, deus ikhastecoa baitcen salbu arrosorio erraten, etchera ekharri zuten 1858 an urtharril hondarrean, Lourdeseco seroretan ibiltceco.

Oxailaren hamecan, ortcegun guicen cen, eta bazcariaren eguiteco egurra escas izanez, hameca orenetaco heinean amac igorri zuen abar eta ezpalketa, ur handiaren heguico sasieta.

Bernadetac hartu cituen bi lagun : bat bere aizpa hameca uthetacoa eta bertcea hamahiru urthe cituen nechca hauzoco bat.

Masabieleco harrocaren parrerat cirenean. Bernadetac utci cituen bere bi lagunac aintcinachago gatera eta ur bate- tic pasatceco hasi cen oinetacoen khent- cen.

Bet betan entzuten du haice burrumba bezalaco bat gaitza. Behatcen du goiti ur heguico zur churietara. Arbola guciac ordean gueldi gueldia daude. Ukhurtcen da berritz ustez deusic ez cen.

Hainbertcenarekin harrabox bera berritz aditcen du eta oraino azcarrago. Behatcen du orduan harrocaco aldera, eta harroca hare zolan baitzuen atherbe cilho handi bat, icusten du barne hura dena argui arguia, eta gorachago bertee cilhosca baten erdi erdian chutic, Andre handi bat, churiz bezti, guerricoa ceru colore, bela churi bat burutic, arrosorio bihi churi batzu escuan, eta arrosa hori bat oin bakhotcharen gainean.

Andre horrec Bernadetari kheinu eguiten dio hurbil dakion. Haur gaichoa harritua dago. Naski bichta bide duela cerbeit lambro edo llilluraz hartua, bi beguiei harrascaca ari da. Halaric ere gueroago eta agueriago dohaco icusgarri chora-garric hura.

Nolazpeit belhaunico pharatcen da, eta bere arrosorioac escuan, hasten da, ja hain lakhet citzaion othoitz haren erraten.

Bere bortz hamarrecoac numbeit han erran dituenean, aguertzapena emeki emeki itzaltcen zaio bichtatic.

Eta Bernadeta han baitzagon aintcina bere harroca cilhoari beha, azkenecotz lagunec oihu eguin cioten higuizadin handic heien egurketa laguntcera.

Hetara bildu cenean, ezagutu cioten cerbeit arte hartan guerthatu citzaiola, eta jakin artio ez cioten utci bakeric.

Bernadeta bertce nihori ez erratecotan hala errana, etchera eta, bi nechca heien lehen lehen lana izan cen amari eta hauzoco gucieri denen salatcea.

Horiec oro haurkeria batzu cirela, eta orobat ondotic hoben cerbeit ekhar ere cezoketela, amac Bernadetari berritz toki berera hurbiltcea debecatu cion. Haurrac hitz eman cion obedituren zuela.



Bainan bera baino guehiagoco indar batec Bernadeta nahitez bethi harat baitceraman; hauzoco jendeec berenkin bedere erematea amaganic ardiexiric, ondoco Igandean eta Ortcegunean itzuli cen berritz bere harrocaren aintcinera.

Bi aldi horietan icusgarri ber bera aguertu citzaion.

Igandecoan, jakin behar zuela bada izaite michteriozco hori eia cen onecoa ala gaichtocoa, ur benedicatua hiruetan butatu cion, eta hiruetan Andere harc eguin cion behatce ezti eta maite bat.

Ortcegunean, ez choilki aguertu, bainan mintzatu ere citzaion, eta errancioen, oraino hamabortz egunez jin zadin aintcina hara berera.

Lourdesen eta inguru herri gucietan, ez cen ja bertce aiphuric ez bertce espan turic gauza hortaz baicen.

Bernadeta bere harpeco aldera zohan guciez, metaca jendea zohacon ondotic. Hainitcec aintcintcen ere zuten.

Gobernamenduco guizonac khechatu ciren. Cer nahi eguin cioten nechca ahul horri guezurrean baitez bada atchewan beharrez... Bernadetaren lañotasunetic, ez zuten athera ahal izan bethi eguia bera eta berdina baicie; bere abiltasun eta escola guciekin ez zuten ahalkeric baicen harekin irabaci. Nahi izan zuten jendea trabatu Bernadetari grotarat jarraikitcetic. Grot a bera debecuan ezarri zuten; baina horiec guciac debalde izan ciren azkenecotz.

Grotaraco bidea, hango ur heguia, harrocac, sasiac, ur handiz bertzaldeco alhorrac, jendez noiz nahi estaliac ciren.

Hamabortz egun hetan, hamahiru aldi, bethi aguertce bera icusi zuen Bernadetac. Han ciren jendeec ez zuten icusten gauza hura bera; baina Bernadetaren itchuran berean aise ezagutcen zuten miraculuaren dirdira.

Bertcenaz ere Bernadetaren beraren

icuskhideez, ja bazuten han bertce miracu-  
cuiluric, eta nihorentzat ez cen guehiago  
dudatceric Ama Birjina bera cela arima  
garbi hari harpe hartan hala aguertcén  
cena.

Beraz lehenbicico egunetarie batean  
Ama Birjinac erran cion Bernadetari :

« Zohaz, haurra, hortcheco ithurri  
« hortan edatera; garbi zaite, eta jan  
« zazu ur horren bachterreco belhar-  
« retic. »

Bernadetac behatcen du escuin, behat-  
cen du echker; eta baitzakien harroca  
hetan ez cela ithurriric, naturalki abiat-  
cen da Gaieco ur handiari buruz, zoina  
han baitzuen hamar bat urraxetan.

« Ez hor, ez hor, erraten dio Ama  
« Birjinac; zato, hementche da barne  
« huntan ithurria. » Eta escua harpe  
chokhoco alderat hedatuz, eguiten dio  
kheinu, han mià dadin.

Haurra badoha harat, eta han ez du

causitcen, lur busti puchca bat baicic. Hartan berean aztaparrez putchu bat eguiten du : Putchu hori berehala bethetcen zaio ur lohi lohi batez. Edaten du, garbitcen da, eta jaten du bachter-reco basa belharretic.

Handic lehenbicico egunetan, ur hori ez cen oraino chirrichta mehe eta urri bat baicic, bainan hargatic dena ere emekitto emekitto emendatuz eta garbituz zohan.

Tokico berri zakitenec, cioten deusic ez cela hura ; cioten harroca cilho idor hartarie nihola ez zaitekela uric sor ; cioten orduan han aguertcen cen ur nigar hura, aguertu bezala segur eta laster agorturen cela.

Harrizco asca bat hasteco eguin zuten eta ura sortcen cen putchutic beherachago ezarri.

Asca hura bethe cen becein laster huna miraculu bat.

Lourdeco etche batean, haur imbalier bat, bi urthetan oraino chutic abiatcecoa, hiltcen ari cen. Ja cembeitec hiltzat ere utcia zuten.

Amac hartcen du bere taulieraren barnean, eta erho bat iduri, badoha lasterrez harpe sainduco ithurrira.

Hila balin bacen hila, bertcela ere cer nahi guisaz exitua, bere haurra sartcen du lephoraino ascaco urean. Ur horma iduri hartan lucez iduki ondoan, baderama hotz gogortua etcherat, eta pautacen du bere sehascan.

Cembeit orenen buruan, ohartcen dire haurrac haxa baduela, eta lo dagoela.

Biharamunean, bulharrez arte hartan eta loz onxa aseric, haur hori, jeiki nahia, nekhez atchiki zuten ohean.

Biharamunagoan hor atchematen dute muthicoa ohetic escapatua eta chutic eta jaucica hantche dabilala.

Horra lehen aldicotz nola ohartu ciren



jendeac ur miracuiluzco, haren berthuteari.

Cembeit ehun icusle seguric bacen han, ama hanc bere haurra ur hotz hartan sarthu zuenean, eta guciec oihuca gaizkitu zuten bere crudelitate icigarriaz. Guero hargatic bertce oihu guisarric athera cen jende heien ahotic, ama haren fedearen, eta Ama Birjinaren botherearen laudatceco.

Eta gueroztic hasiric nombre gabe baitire Harpe saindu hortaco uraren miraculuac, icusiz baicen ecin sinhexiac, bainan milaca jende ernez icusiac eta sinhexiac, ichil daude orai, ithurri hori deusic ez cela hain gora haste hartan erraten zutenac.

Laster agortuco cela ere ur hori baitcioten; orai seguric, ehun eta hogoi mila pinta gutienetic egunean ematen ditu Bernadetaren erhiz eguinicaco putchuac.

Marchoaren bieco aguer aldian, Ama Birjinac huna cer erran cion Bernadetari.

« Errozute apheceri nahi dutala he-  
« men eliza bat, eta proasioneac hunat  
« eguin ditén. »

Bertce aldi batez Ama Birjinari hiruetan Bernadetac entzun cioen hitz bakhar hau, dena ere saminki : « Penitencia !  
« penitencia ! penitencia ! »

Berac manaturicaco hamabortz egun hetaz bertzalde oraino, hirur aldi Jaincoaren Ama aguertu cen Bernadetari. Martchoaren hogoi eta bortcean, guero Bazco biharamunean eta axkenecotz Uztailaren hamaseian.

Anontciacioneco besta egun goiza cen Bernadetac hiru aldi Ama Birjinari eguin cioenean galde hau.

« Othoi, Andre ona, erradazu bada  
« orai, nor zaitudan zu, hemen hola  
« aguertcen zaizkidana. Othoi, aldi hun-  
« tan bedere, erradazu zure icena. »

Ama Birjinac ordu arteraino bere bi escuac junt baitzagozcan elgarri, berechi cituen, bere arrosorioac beso escuina lerraraciz : guero bi besoez eguin zuen ezti ezti goratce eta beheititce bat, ceruari beha pharatu cen, eta berritz bi escuac juntatuz hauche erran zuen :

« *Ni naiz, Concepcione notha gabea !* »

Egundaino munduan izan balin bada gauzaric artharekin eta zorrozki miaturic, Lourdeseco miraculu horiec dire. Alde gucietaric, guizonic abilenez, izpirituric gaitcenez, federic gaichtocoenez berez atacaturic eta haztaturic izaiteac, ez ditu hobeki beicic munduaren lau bazterreri ezagutaraci heien eguiaren frogac.

Bernadetaz denaz becembatean, bere aita amac lehen becein behar utciric, munduari seculacotz ukho eguinic, orai serora da comentu urruneco batean.

IV.

**Gure beila edo pelegrinaia.**

Cer orhoitceco egunac guretzat. Bazco astelehen-astearte hec !

Lourdesen guinen hamar bat mila pelegrin, Baionaco diosesaren bazter gucietarie harat bilduac... denac guizonac... erdiac eta guehiago Escualdunac.

Bere lauetan hogoi urtheen gainerat beila horren gurekin eguita gogoari emanic, huna cer oihu eguin berri ceraucun gure Jaun Apezpicuac :

« Huna beraz Jubilau dembora. Hola-  
« cotan guirichtinoec lehenago bazter  
« gucietarie jotcen zuten beilaz Erro-  
« marat. Gu oraï harat nekhez guino-  
« hazke hec bezala. Ordean horra Lour-  
« des ez hain urrun ; horra Ama Birjina

« aguertu den tokico Eliza, Erromaco  
« elicen herroncacoa. Horra bi urraxe-  
« tan hunachago, gure Betharrameco  
« capera eta galbarioa. Betharrameco  
« Birjina Saindua salutatz gure bi-  
« dean, guacen Lourdera. Oroc bada-  
« kizue hango miraculuen berri. Eliza-  
« ren oraico dembora penatuetan, harat  
« dute lehia munduco fededun guciec.  
« Hox! ene diosesaco guizonac, hogoi  
« eta hemezortci urthe huntan neure  
« escuz confirmatuac, altcha zaitezte eta  
« jarraik niri. Orai gure aldi da, guacen  
« gu ere Sabatzailearen ithurrietara; goa-  
« cen Lourdesera, han aguer dadien cer-  
« fedetaco guirichtinoac garen... »

Gure artzain onaren boz horrec oro inharrosi gintuen. Bainan nola ihardex eta nola hari jarreik, gure Escualherri zokho barraiatuetaric? Nola hel Lourdera, guciz hare erran eguneco? Ecen burdin bideec ez dute hunkitcen Escualherriaren hegal bat beicic.



Halarican ere, bazter urrunenetic,  
Aldudetic, Urepeletic, Eztenguibeletic,  
Larrainetic, Santangratiatic, hamarca,  
hogoica, ehunca guizonac atheratcen  
dire... eta cer guizonac !

Icustecoac ciren bidean zohatcila, nor  
nahiren bihtan Fedeac hein bat gora  
copeta altcharazten ciotela, beren ku-  
rutce gorriac papoan, arrosorioac escuan,  
eta hainitzac, hamar, hogoi lekuen egui-  
teco oinez.

Puyoco edo Baionaco garara behin  
heltceco, Aldudetic baita laurhogoi bat  
kilometra, alderdi hartaco pelegrin gutiz  
guehienac, oinez ciren... eta Baigorri  
aldeco guciac heier juntatcen ciren.

Zuberotarren erdixuec, bana bertce  
beren 70 kilometrac orobat, oinez eguin  
dituzte, gararic hurbileneraino, edo Lour-  
desera bereraino.

Oinezco pelegrin horietan baciren cem-  
beit 70 urthez goiticoac.

Adin hortaco batto, burdin bidea bere guisa utciric. Donapaleotic, Lourdeserainoco juañ jinean, oinez beicie ez da erabili.

Berdin Berdina eguin ditu Santangraciatarretaric batec hiruhogoi eta hamalau urthetan, oinez bere 87 kilometrac Lourdesera berera, bertee hainbertce guero etchera.

Atharratceco 13 urthetaco muthico mendretto bat, eta Asturuco etheco andere on bat, Bazcoco goiz Meza ondoan ethetic abiaturic, oinez 80 bat kilometra seguric eguinic, Lourdesen ciren biharamun eguerdico, eta hango debocione gucietan egonic, oinez etchera heltcen ari ciren Asteazken arraxeco.

Anhauztarrena da ederra. Beren Yaun Errotor hain cara mendrecoa aintcineco, numbeit han herrico guizon guciac pelegrin bide ciren, eta denac oinez, Puyoraino, 60 bat kilometretan.

Bai haracoan, bai hunacoan, bide gucian othoitcean edo cantuz ibiliric, asteazken arraxeco hamar orenetan, Ama Birjinaren letaniac errepicatuz, heltcen ari ciren Anhauceco plazara. Jaun Errotoraren etche aintcinean oroc elgarrekin arraxeco othoitza eguin eta erretiratu ciren bakhotcha bere etche-tara.

Lucegui liteke ordean guisa hortaco exemplu gucien hemen aiphatcea.

Bazco biharamun arraxaldean, hiru orenetaco, guciac Lourdesen guinen.

Bortz orenec jotcearekin, huna nun Basilicaco dorre gainetic bortz ezkila gaitz balambaca hasten diren.

Airean da Lourdeseco hiri gucia. Car-rica sahexac, etchetaco leihoac, galeriac, bai hango bereco, bai ondo herritaco jendez betheac dire : guciec nahi dute icusi gure proasionea.

Eta cer proasionea !... Lourdeco ga-

ratic Ama Birjinaren harperaino baita urrax onez oren erdi baten bidea seguric, halaric ere erregue bidea eta caricac ez dire aski zabal gure aise cocatceco.

Lehenic lau lerrotan abiatu guinen garatic. Hola lucegui heldu celacotz, eman guinen sei lerrotan, eta halere ez askiz, azkenecotz metan eta sorkham bezala, hantche guinohacin othoitcean eta canta errepicaz. Mariaren loriac bakhotchac gure linguaia berecian ceruetan gora altchatuz.

Othe guinakien orduan lurrean ala ceruan guinen ?...

Gure herri nausietaco banderekin eta gure hirur ehun aphez churitan jauntciekin, hamar mila pelegriñac heltcen ari guinen Grotara, noiz eta ere gain batetic guri beha aguertu baitzitzaizkigun, gure Jaun Aphezpicua eta Tarbesecoa.

Elizaco bi Artzain-nausi horiec, beren ornament ederretan, handic ari ciren gure benedicatcen, biac nigarrez. Gure han hala icusteac, bai axeguinae, bai amodioac bihotza hauxi eta, bi aita onac nigarrez !

Harpe Saindura guineneco bildu ciren biac gutara, eta gazteenac zaharrena escutic atchikiz igan ciren mail batzu gora, han berean, campozabalean eguina cen aldare baterat.

Hainbertcenarekin Aita Dominicano bat Frantciaco aho ederrenetarie, badoha predicateguirat : bainan oharturic halaco jendetce gaitzari mintzatceco aphalegui dela, zurubietan gora hor igaiten da, grotaco sahexari josia den etchearen cascora.

Guri behatu eta, bere boz ocen eta handiarekin, botatcen du airetarat Isaias profetaren galde hau :

*Qui sunt isti, qui ut nubes volant ?* Nor



dire hauc, hedoiac iduri airean baita-  
biltza.

« Ixaso zabaletic Jaincoaren haiceac  
« altcharazten dituen hedoién pare, gu  
« ere diosesaren bazter gucietaric altcha-  
« raci gaituela, dio, eta airean be-  
« zala Lourdeserat helaraci, gure Jaun  
« Aphezpicuaren oihu batec. »

« Escualdunac bereciki zaizco mira-  
« garri, hain urrundic, hain zalhu, hogoi  
« lekhuetaraino oinez cembeitec eguinic  
« harat ethorriac. . . »

« Lehen ere gutaric urrun entzuna  
« omen zuen Escualdunen Fedearen  
« fama. Bainan orai bere bi beguien  
« bichtan baititu Escualdun hec beren  
« Fedearen agueri guciekin, erraten  
« darocu, mundu gucian oraino deus ez  
« zaiola iduritu, ez ederragoric, ez eta  
« ohoragarriagoric. »

Hitz horietaric seguidan, predicari  
eder hori, hedatcen da Ama Birjinaz eta

Lourdeco debocione miragarriaz mintzatcerat. Oren erdixu bat hantche loria-tuac atchiki guintuen.

Predicu hori akhabatcearekin, gure Jaun Aphezpicuac Sacramendu saindua escuetan harturic, eman ceraucun Jaun handiaren benedicionea.

Orducotz ja ilhuna cen, eta guciec bakhotchac gure tortchac phiztuac guintuen. Canta errepicaz eta gure arguiac escuan, abiatu guinen lerroz lerro proa-sionean, mendico aldapari gora ceihar-catuz dohan bide batetic.

Grotaren gaineco elizaren ingurua eguinic, hola hola hedatu guinen oro Lourderaco bide zabalean, guero bethe guinuen hirico carricaric luceena eta azkenecotz coca ahal guciac, baterat bildu guinen plaza-nausi handiaren bar-nera.

Bazcoco Elizaren cantu eder bat han cantatu zaucuten semenarioco ehun bat

aphez-gaiec, eta hura entzun ondoan, oro ichil, eta bihotzac gozoric, barraiatu guinen, bakhotcha gure desc anxuaren hartceco tokietara.

Hainitcec, lo eguin baino nahiago izan zuten gau hura gucia beilatu Basilican berean.

Gauerditic goiti, Basilicaco hogoi eta bortz aldaretan, gure aphezac hasi ciren beren mecen ematen, eta lehen Mezatic hasiric, mahain sainduetan, comunioneac ez ciren baratu numbeit han zazpi orenac artio.

Goiztiri dohaxu hartan, hango debocionearen pareric ez cen. Orduan ez guinuen bertce deusez phenxatcen gure Jainco onaz eta haren eta gure Ama maiteaz baicen.

Bihotceco bakeac, amodioac, confidentciac, Maria Birjinaren etchean guinela orhoitceac, gure Salbatzaile dibinoaz gozatceac, batzuec bertceeri han ema-

sten zuten exemplu hunkigarriac, horiee  
guciee ezartcen quintuzten bertce mundu  
baten erdian bezala.

Ez batzu, bainan oro guinen guisa  
berean hunkituac eta loriatuac.

Zortci orenetan guinuen Meza nausia,  
Biarnesec galbario bichcarrean, eta Es-  
cualdunec Grotaren aintcinean.

Egundaino ez gare orhoit, Meza batean  
hain gogotie, hain bihotcezan cantaturie.

Gucia, bai gazteac, bai zaharra, han  
ari guinen eta cinez, bakhotcha bere  
aldetic, eta hainbertce bocec ez zuten  
urrunerat, omen, boz bakhar bat beicic  
eguiten.

Ebanjelio ondoan, bezpera arraxeco  
predicariaren toki berean, harroken eta  
sahax batzuen artean, icusten dugu chu-  
tic guizon aphaltto bat, zoinaren begui-  
tarteaz lehen ere numbeit icusia baiki-  
nnen bainan ez arropa.

Horra nolacoac diren beraz laster Es-

cual herrirat ethortcecoac diren aita Benedictinoac.

Orai beguien bichtan dugun hunec, mundu huntaco guritasunen edo aisien ondotic gabiltzaneri, ja hainitz ematen daucu phenxatcerat.

Duela zazpi ehun urthe S<sup>n</sup> Bernat bat hola holacoa bide cen ichuraz eta penitentciazco cara hortaz; bainan segur badute elgarren bertce eiteric ere.

Dom Agustin Bastres Escualherrico seme da. Ez guc hura, ez harc gu, ez guinero cer nahitan elgar ukha, eta nahiz seculacotz ukho eguin duen munduari, ez du ukho eguin Escualherriari. Escualdunen arimen salbatceco, berac eran daucu egon gogo duela Escualherrian.

Bere bici molde gogor eta ahulaz chukhatua eta ecindua. Beha, gaude othe dukeen indarric, hainbertce jenderi, campo zabalean, bere bozaren adiarazteco.



Hasten da, eta lehen lehen hitcez iduri du inharrosten duela ibar gucia. Lau mila aditzaile baino guehiago han baguinen, eta apartenic cirenec diote, haratagotic ere aise entzunen ahal zutela.

Bertzalde ez citzaicun ixusi, lekhu suerte hartan escuararen aditcea.

Eta bere sor lekhuco escuara garbi, laño eta ederrean, harc handie erran daroskigunac, ah ! guc bezala entzun balituzte gure herritar guciec !

Ez omen guinabiltzan ez han gu egun hartan munduco gauza iragancorren ondotic, bainan bai arimarentzat eta eternitatecotzat hain balios diren argui eta gracies ondotic : Ama Birjinac han obratu miraculuec, cioen, behar zutela gure Fedea azcartu.

« Fedea ! cer argui ederra ! Fedea !  
« cer ontasun eta dohain baliosa ! Cer  
« gracia munduco tresor gucieri prefe-  
« ratcecoa !... Fedea, guirichtino bici

« guciaren erroa!... Ah! Escualdunac,  
« Fede hori gure arrazarentzat cer oho-  
« rea!... Eta othe ditezke bada gure  
« odolecoetan Fedea galdu duketenac?  
« Ah! certaco utz Escual herria! he-  
« mendic nihorat joan gabe, hain urus,  
« hain aise, hain ohorezki guciz, bici  
« cintezketelatic! »

« Cer erran cion Ama Birjinac Ber-  
« nadetari?... Penitentcia! Penitent-  
« cia! Penitentcia!... Fedea ez da aski  
« Cerurat heltceco, penitentcia da Ceru-  
« raco bidea, eta bide hori ingoitiric  
« bethi eta nor nahirentzat Jesu Kristoc  
« eguin duena izanen da. Ez, nihorc ez  
« du atchemanen bertceric. Hargatic  
« egungo egunean, hainitcec uste dute  
« salba, bide hori utciz eta penitentiari  
« ihes egunez... Ez dute phenxatcen  
« hainitcec, guritasunean eta aisian bicit-  
« cea baicic, eta aisia haren noizbeit-  
« cotzat bedere beren buruari ematea

« gatic, cer ez dute orobat beren arima-  
« ren caltetan ascoc eguiten, bai eta  
« pairatcen ere?... »

« O Escualherrico laboraria, zu becein  
« bide chuchenez, zu becein bide segu-  
« rez, nor dohake Cerura? ecen goiz  
« arrax, urthe buru batetic bertcera cer  
« da zure bicia? Penitencia; bainan ez  
« conxolacione eta gozo gabea! »

« O laborari Jainco leguean bici za-  
« rena, ongui phenxa bacineza cembat  
« duen balio zure nekhezco eta peni-  
« tentciazco biciaren bakheac berac!...  
« Ah! maita, maita zazu zure labo-  
« rantza. Ez, ez ihes eguin lanari, ez  
« ihes eguin zure bakeari, ez ihes eguin  
« ceruco bideari... »

« O Escualdunac!... maita, maita  
« zazue Escualherria.. Zaudetze hor  
« berean Escualherrian... Nihun ez  
« zaitezketen urusago, eta nihundie ez  
« zohazketen Cerurat segurkiago! »

Eta oraino hitz horiec ez dire gure Aita predicariaren hitcetarie, bakhar batzu baicic, direnac ere heien ahal hixtu eta hotztu batzu.

Bera cen bera aditcecoa, bai eta ere icustecoa! Haren bihotz barnetic suac iduri zuen phindarca atheratcen cela camporat. Azkenecotz gutiz guehienac nigarrez guinauden haur batzu bezala.

Huna guero akhabantzan, pelegrinaie handietaco usaiaren arabera, eguinaraci zagozkigun oihuac edo aclamacioneac.

Harc lehenic erran eta haren ondotic gure oihuz denec betan.

« O Maria, maita, beguira, salba zazu  
« Eliza! »

« O Maria, maita, beguira, salba zazu  
« gure Aita Saindua! »

« O Maria, maita, beguira, salba zazu  
« Frantcia! »

« O Maria, maita, beguira salba zazu  
« Escual herria! »

Laugarren eta azken oihu huntara guineneco, nigarrec boza itho nahi ceraucuten.

Ez secular ez dugu han guinenec ahantcico, gure bihotzac orduan han nola ciren; eta ez da dudacic gutaric hainitcec bi egun hetan Lourden izan dituzten inharrosaldi loriagarrieri zor izanen dutela beren salbamendua.

Astearte eguerditic laster guinuen Lourdesetic gure partiada. Hel ahal guciec jo guinuen handic Betharramera.

Betharrameco galbarioa gora proasione eder eta hunkigarri bat eguin guinuen, eta gain gaineco bizcarrean, hirur gurutcetan errecibitu Sacramendu Sainduaren benedicionea.

Handic jauxi eta behereco caperara sarthu guinen, hango Ama Birjinaren oinetan oraino othoitz eguiteco.

Bainan orducotz dembora chuhurtua izanez nahi baino lastertchago abiatu



guinen bakhotcha gure etchetaco aldera  
juan bide berez eta harateco molde bere-  
tan.

Etchera eta guciac gauza bati ohartu  
gare : ez guinela unhatuac ; bai ordean  
erran diteken baino guehiago conxola-  
tuac.

O Lourdeseco Andre dena Maria !

O Betharrameco Ama Birjina !

Othoitz eguizu guretzat



ESCUALDUNEN  
**L O U R D E C O**  
CANTICAC



ESCUALDUNEN  
LOURDECO  
CANTIGAC.



LOURDERACOAN CANTATCECOA

*Pastores loquebantur ad invicem,  
Transeamus usque Bethlehem et videamus.*

AIREA : Atzar gaiten atzar lotaric....



(Errepicaz guciac).

Guacen, guacen, galdetcen gaitu  
Ama Birjinac Lourdera :  
Dugun icus nun den aguertu ;  
Guacen Lourdeco harpera.



(Batec).

Escual herrian entzun dugu  
Miracuilu baten fama,  
Lourdesen icusi omen du  
Haur batec Jesusen Ama.

Guacen, guacen, galdeteen gaitu...

Hamalau urtheco nechca bat,  
Deitcen cena Bernadeta  
Ur heguico zariKETara  
Gan omen cen egurketa.

Guacen, guacen, etc.

Harrabox bat airian entzunic,  
Cer othe cen han baitzagon :  
Andre bat harroketa chutic  
Aguertu omen citzaion.

Guacen, guacen, etc.

Harpe batetic gorachago  
Cilhosca baten erdian,  
Ama Birjina beha dago  
Bernadetari lorian.

Guacen, guacen, etc.

Churiz beztitua omen cen  
Eta choragarri eder.

Bainan haur garbi hari baicen  
Ez zaiteken hala aguer.

Guacen, guacen, etc.

Erran omen cion haur hari  
Ithurri bat bacela han :  
Edan eta zadien garbi,  
Hango belharra cezan jan.

Guacen, guacen, etc.

Harpe hartan ez baitcen uric  
Lehen secular icusi,  
Bernadetac han ithurriric  
Nihondic ez ciron causi.

Guacen, guacen, etc.

Bernadetac harpe chokhoan,  
Escuz chilhaturic lurra,  
Berehala haren chilhuan  
Athera omen cen ura.

Guacen, guacen, etc.

Ithurri bat nasaia orai  
Erran dute han badela :  
Sendatce handiac ere bai  
Ur hare eguin dituela.

Guacen, guacen, etc.

Birjinac erran cion omen  
Bernadetari hau behin :  
« Eliza bat nahi dut hemen ,  
« Mundua hunat bil dadin. »

Guacen, guacen, etc.

Bertce behin penitentciaz  
Birjina mintzo citzaion,  
Bainan gure gurikeriaz  
Nigarra omen zarion.

Guacen, guacen, etc.

Diote hau erran ciola :

« Hassarre da Jaungoicoa.

« Neronec ez dirot nihola

« Iduc ja haren besoa !

Guacen, guacen, etc.

Bernadetac azken galdea,

Hauche omen cion eguin :

« Zure icena Anderea

« Othoi nahi nuke jakin. »

Guacen, guacen, etc.

Birjinaren errepostua

Galde horri hau izan cen :

« Notha gabe contcebitua,

« Horra nola deitzen naicen. »

Guacen, guacen, etc.



## HARPE SAINDURAT HELDU ETA

CANTATCECOA.



AIREA : Atzar gaiten atzar lotaric....

(Boz batec).

Huna, huna Harpe Saindua,  
Belhaunica gaiten hemen.

Birjinaren aguer lekhua :  
Beha horrat, horra nun den.

(Errepicaz guciec).

Horra, horra Harpe Saindua,  
Hor aguertu cen Maria :  
Huna miracuiluz sorthua  
Birjinaren ithurria,



(Boz batec).

Horra, beraz nora cen jauxi  
Ama Birjina cerutic !  
Bernadetac zuen icusi  
Harri cilho hartan chutic.

Horra, horra....

Noiz ere hunat jauxi baitcen  
Ceru lurren Erreguina  
Harroca eta sasiz baicen  
Lekhu hau ez cen eguina.

Horra, horra... .

Bernadeta hementche zagon  
Choratua hari beha.  
Guretzat ere ô cein den on,  
Egun hemen izaitea !

Horra, horra....

Hauche da hemen guerthatceco  
Gauzaren hunkigarria!  
Gure gana hala jiteco  
Zu behar cinen Maria!

Horra, horra....

Huna nun dugun gure bichtan  
Orduco zure itchura;  
Huna ithurritie cirristan  
Zuc hor sorraraci ura.

Horra, horra....

Bernadeta becein garbiric,  
Nihor balitz gu tarteaz,  
Menturaz berritz agueriric  
Zacusaske hor berean.

Horra, horra....

Ama Birjinac erran hitza,  
Oi cein handixki den bethe!  
Horra hare galdatu eliza,  
Hein bat eder eguin dute!

Horra, horra....

Harpe saindu huntan gueroztie,  
Birjinac erran bezala.  
Ceruco graciën ondotic  
Mundua hemen dabila.

Horra, horra....

Mundu guciac badakitza  
Hemengo miraculuac.  
Nun nahi azcarrie dabilta  
Eri hemen sendatuac.

Horra, horra....

Gorphutceco gaitcez bertzalde,  
Arimacotan ere bai,  
Cembat den ondu hemen jende,  
Nor laite errateco gai?

Horra, horra....

Nor ez laiteke hunkitua,  
Hemengo icusgarriez?  
Zu zare Maria saindua,  
Mirexiena guciez.

Horra, horra....

Escualdunac zure oinetan  
Huna nun diren Maria.  
Iducozute bihotzetan  
Othoi fede bat garbia !  
Horra, horra....

---

## ESCUALDUNEN LOURDECO CANTICAC

---

(Errepicaz guciec).

Agur, agur,  
Agur Maria,  
Agur, agur,  
Agur Maria!

(Batec).

Amodio ohore  
Ama Birjinari  
Maria notha gabe  
Contcebituari.

Agur, agur, agur Maria....

Gure lehen aitamen  
Bekhatuac ez du  
Seculan Mariaren  
Arima goibeldu.

Agur, agur, agur Maria....

---

Bekhatu gabecoric  
Adamen arrazan  
Ez zu bezalacoric  
Ez da nihoiz izan.

Agur, agur, agur Maria....

Maria, zu hain garbi  
Hain saindu sorthua  
Zuc duzu sugueari  
Lehertu burua.

Agur, agur, agur Maria ...

Yaunac zu bethidanie  
Cintuen beiratcen :  
Zure seme zu ganic  
Sortcecoa baitcen.

Agur, agur, agur Maria...



Yaincoaren escutic

Ez da atheratu

Obrarie hain perfetic

Nola baitzare zu.

Agur, agur, agur Maria....

O Birjina Maria,

Cere du zu iduri ?

Elhur eguin berria

Ez zait aski churi.

Agur, agur, agur Maria....

Zure baithan Maria,

Berthutea dago,

Mendico ithurria

Baino garbiago.

Agur, agur, agur Maria....

Zutan gauza handiac

Yaunac eguin ditu,

Eta haren graciac

Zaizkitzu gainditu.

Agur, agur, agur Maria....

Yaunaren baratceco  
Lore sacratua,  
Guizon da eta Yainco  
Zure fruitua.

Agur, agur, agur Maria....

Miraculu bat zare  
Yaincoac eguina  
Nihun parerie gabe  
Am'eta Birjina.

Agur, agur, agur Maria ....

Zu zare bai guretzat  
Yainco baten ama ;  
Bainan gure amatzat  
Semeac emana.

Agur, agur, agur Maria....

Zure Semea hiltcen  
Ari celarican,  
Gutaz amatu cinen  
Dolore handitan.

Agur, agur, agur Maria....

Orai cein puchant zaren,

Birjina Maria !

Ceruco loriaren

Erdian jarria !

Agur, agur, agur Maria....

Othoi zure laguntza

Maria, iguzu ;

Zure haurren othoitza

Ama, entzunazu

Agur, agur, agur Maria....

Lourden cinen aguertu,

Maria haur bati.

Guero cer den guerthatu

Munduae badaki.

Agur, agur, agur Maria....

Harroca hau cen lehen

Uric gabecoa :

Hemendic orai arren

Ura nasai doha.

Agur, agur, agur Maria....

Arimac bai gorphutzac,

Zahar eta gazte...

Hemen sendatu gaitzac

Norc khonda detzazke?

Agur, agur, agur Maria....

Gure ama maitea

Zuc othoi cerutic

Escualdunen fedea

Yducazu chutic.

Agur, agur, agur Maria....

Eliz'eta Frantcia

Daudetzu nigarrez,

Zure ganic Maria

Laguntza beharrez.

Agur, agur, agur Maria....

Lagun zazu Eliza

Zure bothereaz

Zure besoac beza

Frantcia altcharaz.

Agur, agur, agur Maria....

Guizonen erreboltez  
hasarre Yaincoa,  
Bere azotearen  
higuitcera doha.  
Nor da iduc dironic  
Yaunaren besoa?  
Zu zare zu Maria  
indar hartacoa.

Othoi Ama maitea....

Nor da gure artean  
erran dezakenic :  
Yaincoac ez nau joco,  
nic ez dut hobenic.  
Zuc dirozu Maria  
hain garbi izanic  
Gure gracia ardiex  
Yaincoaren ganic.

Othoi Ama maitea....



**(Errepicaz guciec).**

Othoi Ama maitea

Urrical gakizu;

Yaunaren hasarrea

Othoi ezti zazu.

**(Batec).**

Uholde baten pare

Orai bekhatuac

Gaizdiz bazter guciac

Ditu hondatuac.

Nun dire fededunac

nun dire justuac ?...

Azken eguna hurbil

othe du munduac ?

Othoi Ama maitea...

Yaunaren justiciaz  
ikharetan gaude :  
Othoi, Ama, jar zaite  
zure haurren alde.  
Haren gana nor hurbil  
nor aguer zu gabe ?  
Zu zaitugu zu haren  
bihotzaren jabe.

Othoi Ama maitea . . .

Yauna, aithortcen dugu  
gutaric hainitci  
Zuri cer zor guinatzun  
zitzaicun ahanitci.  
Fedea dugu hambat  
ttipitcerat utci  
Escualdunaren ganic  
hori zaitzu gaitci.

Othoi Ama maitea . . .

Lehengo fede hura  
berritz pitz dakigun,  
O fededunen ama  
zuc gaitzatzu lagun.  
Hox ! Escualdunec hemen  
hitz eman dezagun  
Bethi cinez izanen  
garela fededun.

Othoi Ama maitea....

Oi ! cer penetan dagon  
gure Aita Saindua !  
Colpe beraz Frantcia  
nola minhartua !  
Maria entzun zazu  
hekien oihua.  
Hec alchatcen baitutzu  
salbu da mundua.

Othoi Ama maitea....

Salutatcen zaitugu  
Lourdeco harpea...  
Cembat miraculuz den  
lekhu hau bethea !  
Hemen zare aguertu  
ô Ama maitea !  
Hemen largatcen zaicu  
Ceruco athea.

Othoi Ama maitea. . . .

---


Ohore, amodio,

bertce aire batean cantatcen delaric : *errefaua*  
izaiteco plaçan *Agur, agur, agur Maria* izan  
diteke seguidaco hau :

Othoitz eguizu ,  
Othoitz eguizu ,  
Guretzat Maria ,  
Oi zu hain botherexu ,  
Hain maitagarria.

PROSESSIONEAN, *Magnificat* cantatcen delaric, berseten aldizcatceco :

Oi gure esperantza  
Zu zare Maria !  
Salba zazu Eliza  
Bai eta Frantcia.





---

AMA BIRJINA LOURDESACOAREN

OHORETAN

CIBEROUTAR PELEGRIEN CANTICA.

—•—•—•—  
(Botz batec).

Uscaldunac dezagun  
Bilduric bihotzez,  
Goratic khanta egun,  
Gogoz eta botzez :

(Guciec).

Agour, agour, agour Maria !  
Agour, agour, agour Maria !

Lourdes, hire umenac,  
Badia pareric ?  
Mariaren icenac  
Non holaco osperic ?

Agour, etc.

Khapar, botchu hoyetan  
Çu, Maria, aguertcen ;  
Cer nahi gaitz, neketan  
Hortic gouri heltcen.  
Agour, etc.

Oï ! Ama kharioa,  
Cirela maithatu !  
Çoure laidorioa,  
Orotan hedatn !  
Agour, etc.

Beharran oïhiari  
Maria, hel cite ;  
Çoure seme jaunari  
Hentzat mintza cite.  
Agour, etc.

Guciac eri guira  
Loxan, tristecian ;  
Francia, Eliça dira  
Herstura handian.  
Agour, etc.

Etsaiaz zaphaturic  
Çoure haur maitenac ;  
Bekhatian ithoric  
Genten guehienac.

Agour, etc.

Goure arimer emaçü  
Arguia, bicia ;  
Çuc, othoi, salba itçatçu  
Eliça, Francia.

Agour, etc.

Oro, çouri othoïez  
Heben guira egun ;  
Igortçu, çoure indarrez  
Goure exaïac hurrun.

Agour, etc.

Khorpitz, arima eri  
Çuc hanitch sendotu ;  
Nolaz goure othoiari  
Etzintake heltu ?

Agour, etc.

Uscaldunen Fedia  
Othoï azcar çacu ;  
Jincoaren leguia  
Gutan etchekazu.

Agour, etc.

Eguicū Uscalherrian,  
Çutzaz lagunturic,  
Bethi ebil guitian  
Celiz oharturic.

Agour, agour, agour Maria !  
Agour, agour, agour Maria !



## OTHOITZA.

O Maria notha gabe contcebitua :

Zu, Yaincoaren ama, gure ama ere  
zarena :

Zu, hain botherexu eta hain urrical-  
menduxua :

Zu, Lourdeco harpe huntan aguertu  
izan zarena :

Zu, hainbertce miracuilluz, hemen  
gure fedea, gure confidentcia azcartcen  
darocuzuna :

Huna nun naicen ni ere, ene sinhes-  
teac, ene amodioac, ene arimaco eta gor-  
phutceco behar orduac ekharraracia.

Ah ! ene bihotza, ene chedeac eta ene  
othoitzac aski garbi balire, ah ! orduan



cein segur eta cein laster entzuna nindeken !

Othoi, lehenic ardiex dietzadatzu ene arimaren salbatceco behar ditudan graciac, eta hetaz baliatcen lagun nazazu.

Othoi, nitaric hasirie combertiaraz zatzu munduco bekhatoros guciac.

Othoi beha ozute urricalmendurekin ene izpiritualeco eta temporaleco behar ordu gucieri.

Oihoi zure escua heda zazu gure Eliza ama sainduaren gainerat ; gure Aita Saindu maitearen gainerat, eta Frantciaren gainerat.

Othoi, izan zaite, gure yaun Aphezpicuaren eta gure arimen guidari gucien arguitzailea, eta azcartzailea.

Othoi, izan zaite, gure burhaso, ahaide, adichkide, ongui eguile gucien fagortzailea, gure erien sendatzailea, eta pene-tan direnen conxolatzailea.

Othoi jauxaraz zazu gu gucien gainerat

fedezco esperantzazco , eta caritatezco  
izpiritua.

Othoi , guciac benedica , lagun eta  
salba gaitzatzu.

Halabiz.

*Imprimatur :*

FRANCHISTÉGUY, vic.-gén.

---

Bayonne, imp. Lamaignère, rue Chegaray, 39.

